

02/12

*irizpena*

EUSKADIKO PORTUEN  
Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©**Argitalpena:** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

**Maketazioa:** Cuatrobarras

**Inprenta:** Imprenta Gestingraf

**Lege Gordailua:** BI-333-11



*i*rizpena 02/12



## I. AURREKOAK

---

2011ko uztailaren 19an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, Euskadiko Portuen Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat.

02/12*i*

Euskal Autonomia Erkidegoak Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua dela bide portuen arloan dituen eskumen eskusiboak erabiliz, Euskadiko portuen sektorea orokorrean arautu du Legearen Aurreproiektuak; izan ere, sektore horretatik aparte gelditzen dira interes orokorreko portuak eta Estatuaren eskumenerako gordetakoak. Orain artean, araudi izaerako arau sakabanatuak eta zatituak erabili izan dira, baita estatuko arloko legeria ordeztaila aplikatuta ere.

Uztailaren 19an, dokumentua helarazi zitzaien Batzordeko osoko bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak eman ditzaten. Prozedura eten egin da harik eta dokumentuaren entzunaldia bukatu arte. Fase hori gaundituta eta behin betiko dokumentua 2012ko urtarrilaren 4an jasota, osoko bilkurako kide guztiei igorri zitzaien 2012ko urtarrilaren 9an, proposamenak eta iritziak aurkezteko epealdia zabaltzeko; horien berri eman zitzaion Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarritakoaren arabera.

2012ko urtarrilaren 23an, Garapen Ekonomikoko Batzordea bildu zen lan-saioan Irizpenaren Aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatzeko, eta 2012ko urtarrilaren 27an EGABren ospatutako osoko bilkuran Irizpen Proiektua aho batez onetsi da.

## II. EDUKIA

---

Hauexek ditu Legearen Aurreproiektuaren testuak: Zioen Azalpena, 1 kapitulu banaturiko 67 artikulua eta Xedapen Gehigarri 1, 4 Xedapen Iragankor eta 3 Azken Xedapen.

### **Zioen azalpena**

Zioen azalpenean, nabarmendu egiten da Euskadik itsasoarekin eta portuetako jarduerarekin duen lotura historiko, ekonomiko eta soziala ukazina, baita kostaldeko herrien garapenean izandako eragin ekonomiko eta orokor handia ere, arrantza, merkataritza eta industri sektoreen bidezkoa. Gainera, euskal kostaldeko itsasoko jolasen hazkundearen eta turismo garapenaren ondorioz kirol portuak agertzea eta berrantolatzea azpimarratzen da. Hori guztia ezin geldi daiteke portuen araubide koherente eta globaletik aparte.

Arloko eskumenen testuingurua deskribatzen du; izan ere, EHAk eskumen eskusiboa du, interes orokorrekotzat jotako portuenak izan ezik, baita maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez gauzaturiko ondasunen eta zerbitzuen eskualdaketak ere. Aipatu egin da euskal legegile autonomikoak, orain arte, arloa portuen lege propioaren bidez eta modu integralean lantzeko eskurik hartu ez duela, eta titularitate autonomikoko portuak arautzea ezin atzera daitekeela ondorioztatzen da.

Zioen azalpenean, ondoren, aurreproiektuaren edukia azalduko da.

### **Xedapenak**

**I. Tituluak** Autonomia Erkidegoko oinarriko kontzeptuak, eskumenaren eremua eta portuen administrazio antolakuntza definitzen ditu.

**Lehen kapituluak**, legearen xedea ezarri da, hots, honako hauek: EAren eskumeneko itsas portuak zehaztea eta sailkatzea; EAren

portuen administrazioaren egitura eta funtzionamendua ezartzea; euskal titularitateko portuen plangintza, ustiapena, eraikuntza, handitzea, berrikuntza eta mantentzea arautzea; EAEn eskumeneko portuen herri jabariaren kudeaketa arautzea; portuko zerbitzuak emateko araubidea ematea; portuetako jabari autonomikoaren arauhausteen eta zehapenen araubidea ezartzea; eta portuen herri jabariaren araubide ekonomiko finantzarioaren eta portuko zerbitzuen arautzea.

EAEk portuen arloan duen eskumenaren xedeko eremua ere zedarritu du, portua eta portuko obrak eta instalazioen kontzeptuak definitu eta euskal portuen sailkapena egiten du.

02/12*i*

**Bigarren kapitulu**an, portuen administrazio antolakuntza ezarri da, eta Euskadiko Administrazio Orokorraren Sailari eratxiki zaio portuen eta portuko gaien arloko eskumen eskusiboa. Arlo horretako eskumenak aipatzen dira banan-banan, eta hauxe ere ezarri da: aholkuak emateko eta parte hartzeko arau bidez sortu beharreko organoen bidez gauzatuko dela portuen eta itsasoko gaien arloko partaidetza instituzionala eta soziala.

**II. Titulu**an portuen eremuko lurralde eta hirigintza antolamendua eta portuen plangintza sektorialaren egituraketa aztertzen da, baita euskal titularitateko portuen eraikuntza eta ustiapena ere.

**Lehen Kapitulu**an, portuen plangintza aztertzen da, eta honako hauek ezarri eta arautu dira: portuen antolamenduari buruzko oinarrizko tresnak, Euskadiko Portuen Lurralde Plan Sektoriala, Portuen Plan Bereziak eta Portuen Eremuen eta Erabileren Zedarripena, horien definizioak, edukia eta izapideak barne.

**Bigarren kapitulu**an, portuetako zerbitzu-guneetan baimendutako jarduerak, instalazioak eta eraikuntzak ezarri dira, eta portuko erabilera posibleak zehaztu dira: Merkataritza eta industri erabilerak, arrantza erabilera, itsasoko jolas erabilerak eta erabilera mistoak.

**Hirugarren kapituluan**, euskal titularitateko portuen eraikuntza, handitzea, berrikuntza, mantentzea eta kudeaketa lantzen dira, betiere herri ekimenaren jarduketaren eta horren prozedurako ezaugarrien bidez. Ekimen pribatuak portuko herri lanen eraikuntza eta ustiapena gauzatzeko modua arautzen du, herri lanen administrazio emakidaren bidez, baita herri lanen prozedura, ematea eta edukia ere.

**III. Tituluak** portuen herri jabariaren erabilera arautu du, partikularrek horren erabilera pribatua ahalbidetzen duten moduen bidez, eta horien araubide juridikoa ezarri du.

02/12*i*

**Lehen kapituluak** xedapen orokorrak arautzen ditu, eta zehaztu egiten du zer hartu behar den EAEko portuen herri jabariaren barrukotzat. Gainera, baimena edo emakida exijitzea ezarri du portuen herri jabaria erabiltzeko, eta partikularrek portuen herri jabariaren obrak eta instalazioak egiteko udal lizentzia lortu beharra xedatu du, baita salbuespenak ere portuen administrazioa edo haren pentzurako hirugarrena denean.

**Bigarren Kapituluak**, emakiden eta baimenen araubidea ezarri da, eta honako hauek arautuko dira: araubidearen eremua; emakidetarako prozedura; xedapen edo zergapetze-ekintzak; emakiden lagapena, aldaketa, berrikusketa, banaketa eta erreskatea; eta emakiden eta baimenen iraungipena.

**Hirugarren Kapituluak** portuen herri jabariaren artapenari buruzkoa da, eta isurketen debekuak, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzea, hondakinak jasotzea eta dragatu obrak arautzen ditu.

**IV. Tituluak** portuen zerbitzuen gainekoa da; lehenbizi horien kontzeptua eta sailkapena ezarri ditu zerbitzu orokorretan eta zerbitzu berezietan. Bi kategorietako bakoitzaren barruan sartutako zerbitzuak aipatzen ditu banan-banan, eta zerbitzuak emateko araubidea arautzen du.

**V. Tituluak** zaintza jarduera eta zigor-araubidea araupetzen ditu, betiere legezkotasun, tipikotasun, atzeraeraginik eza eta erantzukizun



printzipioetan oinarrituta. Zaintza, ikuskapen eta kontrol ahalmenak ematen dizkio portuko administrazioari; izan ere, administrazioari atxikiriko pertsonalak egingo du lan hori. Ikuskapenaren eratzikipenak zehaztu eta ahalmena ematen dio administrazioari portuko trafiko askea edo ohiko jarduera lehengoratzeko beharrezko neurriak hartzeko. Ontzi handien edo itsasontzien hondoratzearen gaineko kasu espezifikoak arautzen dira, baita jabetza berreskuratzea, administrazioko maizter-botaketa eta abandonaturiko itsasontzi handiak eta itsasontziak ere.

Arau-hausteak tipifikatzen ditu, honela sailkatuak: arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak. Gainera, zehapenen zenbatekoak ezartzen ditu. Azkenik, arau-hausteen erantzukizuna, preskribatzea eta zigor-ahalmena eta kautelazko neurriak erabiltzeko eskumena eta prozedura arautzen ditu.

02/12*i*

**Xedapen Gehigarri Bakarrak** Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikiriko sozietate publikoen modua eta funtzioak mantentzea ezarri du, hots, EUSKADIKO KIROL PORTUA S.A. eta ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A, baita EUSKADIKO KIROL PORTUA S.A.ri atxikitzea ere.

**Xedapen Iragankorretan**, portuen plan berezien, portuen herri jabaria erabiltzeko eta hartzeko ahalmena ematen duten espedienteen, baimen eta emakiden eta euskal titularitatepeko portuen zerbitzueguneko egoitza erabileren araubidea ezarri da.

**Xedapen Indargabetzaile Bakarrak** Lege berriarekin indargabetuta utzitako xedapenak zehazten ditu.

**Azken Xedapenek** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginaren aldaketari eta gehitzeari buruzko xedapenak biltzen dituzte, honako hauei buruzkoak: T-1. Ontzi handiak, T-2. Bidesaria T-3. Merkantziak, T-4. Arrain freskoa, T-5. Seigarren eta Zazpigarreneko zerrenden ontziak, T-6. Aparkamendua, T-7. Ur eta argindarraren kontsumoa. Halaber,

portuen tasen ordainketaren salbuespenak, eraikuntzak eta ustiapenak egiteko emakiden tasen salbuespenak eta arauen garapenari buruzko aurreikuspena, eta bereziki aipatzen da Legearekin bateragarriak ez diren alderdietan indarrean jarraituko duen araudia, garapen hori gertatzen ez den bitartean. Azkenik, Legea EHAOn argitaratu eta hiru hilabetera indarrean sartuko dela xedatu da.

### **III. OHARBIDE OROKORRAK**

---

02/12*i* Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, aldez aurretik, adierazi nahi du ezen Batzorde honen osoko bilkurak, 2008ko otsailaren 1ean, Euskadiko Portuen Legearen Aurreproiektuaren testuari buruzko Irizpen bat eman zuela, Lege Proiektu gisa 2008ko irailaren 30ean onetsia, baina ez zen burutu parlamentuko izapidetzea, legebiltzarra desegin baitzen. Orduan EGABren Irizpenean adierazitakoek indarrean jarraitzen dute, eta Irizpen honetan bildu dira, aurkeztu zaigun aurreproiektu berritik eratorritako ekarpen osagarriekin batera.

Irizpen berri honen oharbide orokorren atalari heltzeko, EGABk berriz ere adierazi nahi du balorazio positiboa egiten duela Eusko Jaurlaritzak euskal portuen sistemari aplikatu dakioken araubide juridikoa oro har arautzeko lege ekimena hartzeari buruz.

Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboari eratxikitako arloa dira Euskadiko portuak eta bertan garaturiko portuko jarduera, salbu eta, Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua dela bide, estatuaren eskumenari gordetako interes orokorrekotzat jotakoak. Izan ere, eskumena betearaztearekin lotutako bitartekoen eta zerbitzuen transferentzia laurogeiko hamarkadaren hasieran gauzatu zen, baina euskal legegileak zati batez baino ez du erabili eskumena. Hala, gaur egun, arau xedapen osatugabeek, arau izaerakoek eta estatuko legeriaren osagarri legez aplikatzen direnek eraentzen dituzte EAEn titularitateko portuak, baina oraindik ez dago Euskadiko portuen sektorea osorik arautzeko araudi propioa.

Portuen sektoreak, Euskadiko bizitza sozialean eta ekonomikoan duen sustraitze sakonaz eta eraginaz gain (Zioen Azalpenean aipatua), pisu espezifikoak du, baita estatuaren araudiaren xedeko portuen multzotik argi eta garbi bereizitako zenbait profil ere. Hori dela-eta, berriz ere diogu garrantzizkoa dela legeria koherentea eta Euskadiko portuen beharrei eta berezitasunei egokiturikoa izatea.

Jarraian, aurreproiektuaren Zioen Azalpena deskripzio hutsa dela esan behar dugu, soilik helburu hauek dituen: ekimenaren oinarri den eskumenen zioa izatea, ezin atzera daitekeela aldarrikatzea eta edukiak aurkeztea. Hala eta guztiz ere, ez da ezer esaten aurreproiektua egiteko arrazoiez, ezta hura inspiratzen eta eraentzen duten printzipioez eta ezarritako xedapenen bidez lortu nahi diren helburuez ere. Ezer ez da aipatzen ezarritako araupetzearen oinarritzkoak diren eta EAEn titularitateko portuetarako ezarri beharreko portuko eredia osatzen duten elementuen inguruan eginiko hautuei buruzko zioez ere.

EGABk berriz dio Zioen Azalpen horren gabeziak konpondu behar direla. Hala, arauaren oinarriak diren zioak labur-labur baina nahikoa informazioa emanda azalduko dira, baita hura eraentzen dituzten printzipioak eta bideratzeko helburuak ere.

Are beharrezkoagoa da hala egitea aurreproiektuaren oinarritzko ezaugarriei buruzko oharbide hauek direla eta.

- Euskadiko portuen sisteman dauden erabileren eta interesen heterogeneotasunaren eragina; izan ere, ezaugarri eta dinamika desberdinak dakartza eraginak erabilerotan eta interesotan. EAEn titularitateko portuak, tradizioz, arrantza portuak izan dira, eta arrantzaren sektorearekin eta horren bilakaerarekin lotura estura duten azpiegiturak dira; itsasoko kirol-jolasetako portuak eta aisialdikoak gorantz doan jardueraren euskarri dira, eta jarduera horretan turismo eta aisialdi politiken estrategiak gauzatzen dira; azkenik, Bermeoko portu komertziala, EAEn eskumeneko portuetan eremu komertzialean diharduen bakarra: Euskadiko portu komertzial handien eginkizun osagarria bete

nahi du garraio politika iraunkorrago baten barruan, non, itsasoko distantzia laburreko garraioaren sustapenari esker, merkantziak errepidetik itsasora garraiatzeko modua izango baita.

- Legearen Aurreproiektuak ezartzeko asmoa duen araubide orokorretik harago joan nahian, betiere EAEren eskumeneko portuen sistema osoa modu berean araututa, eta EAEren titularitateko portuak jardueraren (portuetako azpiegitura komertzialek ikuspen urria dute) arabera sailkapen hutsa gainditu nahian, Euskadiko portuen beharrak eta ahalmenak aintzat hartzea gomendatzen dugu, baita beharrezko espezialitateak sartzeko aukera baloratzea ere arau orokorra garatzean.

02/12*j*

Pasaiaiko eta Bilboko portuek tamainaren, izaeraren, beharren eta eragiketen aldetik EAEko portuen egungo sistemako portuekin konparatuta dituzten ezberdintasunak hain dira handiak -arlu kuantitatibotik nahiz kualitatibotik-, ez dugu uste bi portu horiek sar daitezkeenik Legearen Aurreproiektu honetan ezarritako araubidean. Horrenbestez, eta Aurreproiektuan ezarrita dagoenaren kontra, baldin eta egun interes orokorrekoak direla eta estatuko arauen menpe dauden portu horiek EAERI transferitzen bazaizkio, horien araubideari buruzko lege espezifiko egin beharko litzatekeela deritzogu.

- Portuetan eta portuen jardueretan, oinarrizko zerbitzu publikoko elementuak eta ekonomi eta enpresa elementuak bateratzen dira, eta ondorioz, portuen sistemen eredu ezberdinak ager daitezke portuen kudeaketaren eratzikipenaren eta araubidearen arabera, baita itsaso-lurreko jabaria ustiatzerakoan eta portuko zerbitzuak sortzerakoan eta ematerakoan ezarritako bazkide publiko eta pribatu motaren arabera ere.
  - Lehenik eta behin portuen sistemaren kudeaketa eredu aztertzen badugu, hauexek dira teknikoki bideragarriak diren moduak: herri administrazioak berak, bere egiturak eta prozedurak erabiliz, portuen plangintza, sustapena,

garapena eta ustiapena burutzeko formulak; edo formula deszentralizatuagoak, non autonomia handia duten eta portuak berak izan daitezkeen herri erakundeei eratzikitzen zaizkien eginkizun horiek, betiere kudeaketa profesionalizatzeko eta enpresa eta gertutasun printzipioen arabera jarduteko; eta azkenik, kudeaketa beste operadore pribatuei eratzikitze formulak, emakiden bidezkoak hain zuzen ere. Alde horretatik, Legearen Aurreproiektuak lehen formula hautatu du, eta portuen administrazio osoa EAeko Administrazio Orokorraren portuen eta itsasoan arloko gaien sail arduradunari eratzikitzen dio. Eskumena transferitu zenetik EAEn dagoen egoerari eusten dio aukeraketa horrek. Izan ere, azalpena merezi du Zioen Azalpenean, ez bakarrik Aurreproiektuan ezarritako EAEn titularitateko portuen sistemako oinarrizko osagaietako bat delako, baizik eta honengatik ere bai: ez datorrelako bat Euskadiko Portuen Azpiegituren Herri Erakunde Kudeatzailea sortzearekin. Garraio eta Herri Lanen Sailaren Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea, garraioen politika komuna Euskadin 2002-2012 delakoan dago ezarrita erakundea, eta planak, iraungitzeaz badago ere, indarrean jarraitzen du.

Aukeraturiko eredia, itxura denez, ez dator bat sozietate publiko hauek batera izatearekin: “Euskadiko Kirol Portua” S.A., Hondarribia, Donostia, Orio eta Getariako kirol portuak eta Bermeokoa kudeatzen dituena; eta “Zumaiako Kirol Portua” S.A., Zumaiako kirol portua kudeatzen duena. Izan ere, kudeaketari buruzko ikuspegi deszentralizatuagoa dute, erakunde bizkorragoekin eta profesionalizatuekin. Hala, zalantzak sortzen dira kudeaketaren inguruan: EAeko Administrazio Orokorraren kudeaketa ez ote zaien gordetzen arrantza portuei eta azpiegitura komertzialei; kirol portuetarako, ostera, modu deszentralizatuagoak aukeratzen dira.

Aurreproiektuak aurreikusitako kudeaketa-eredua eta Pasaiaiko eta Bilboko portuen kudeaketari buruzko autonomia araubidea oso bestelakoak dira; enpresa irizpideetan

dago oinarrituta, eta “portuko agintaritza” osatzen duten bi herri erakundeei atxikita dago. Hala, portuok Legea aplikatzeko eremuaren barruan ez sartzeko argudio nagusietako bat da hori, betiere transferentzia EAERI ematen bazaio.

- Itsaso-lurreko jabariaren ustiapenaren eta portuko zerbitzuak emateko eredia ekarri duen filosofiaren berri ere ez da ematen, eta xedapenak aztertuta ikus daitekeenez, liberalizatu nahi dute, eta gune zabalak eman ekimen pribatuaren jardunari. Alde batetik, II. tituluan aurreikusten denez, ekimen pribatuak portuko herri lanak eraikitzea sustatu ahal izango du, baita horiek obren emakidari eta administrazio ustiapenari buruzko araubidean ustiatzea ere. Horrelako obrak, ekimen pribatuari eratziki ohi izan zaizkionak, modu orokorregian proposatzen dira testuan, eta xedapenen testuan, esplizituago azaldu behar dira ekimen pribatuari atxikita aurreikusten diren kasuak. Kudeaketaren eta ustiapenaren ereduaren izaeran ere aldaketa ekarri dute.

Zerbitzuak ematearen arloan ikus daitekeenez, bide pribatuak gehitzearen aldeko aukera dago, dagoeneko estatuko legeriak ezarria, non eskuratze librearen eta operadoreen arteko lehiaren araubidea finkatu den. Administrazioaren zuzeneko jarduketa pixkanaka murriztea aurreikusten da, baita sektore publikoko langileek portuetako jardueran parte-hartze txikiagoa izatea ere.

Garraio eta Herri Lan Saila eta horren Portuen eta Itsasoaren Arloaren Zuzendaritza ez diren beste erakunde eta eragile batzuek portuen kudeaketan eta, oro har, portuen eta itsasoaren arloko gaietan parte hartzeari dagokionez, Batzorde honek uste du Legearen Aurreproiektuan ezarritako ereduaren ezaugarri nagusia marjina murrizta eta urria dela. Hori ez dator bat interes orokorreko portuen sistema portuko bizitzan parte hartzen duten eta interesa duten beste eragile batzuek parte hartzeko zabalitzearekin. Izan ere, zabalitze horri

esker, administrazio eta enpresa erakunde partaide guztiak, sindikatu nagusien ordezkariak eta portuko trafikoarekin zerikusia duten sektore ekonomiko nagusiak har daitezke Bilboko eta Paisaiako Portuen Administrazio Kontseiluen baitan. Legearen Aurreproiektuaren EAEn titularitateko portuen ereduak, ordea, portuen eta itsasoko gaien arloko partaidetza instituzionala eta soziala burutzeko organo aholku-emaileak eta parte hartzeko organoak izatea baizik ez du aurreikusten, baina organo horien sorrera arauen bidez gauzatuko da eta hauxe besterik ez da esaten horien gainean: beste herri administrazio batzuk edota administrazioko sailtako eta EAeko portuen eremuan interesa duten sektore guztietako ordezkariak izango direla.

Batzorde honen ustez, Legeak berak zehaztu behar ditu organoon funtsezko elementuak, eta ez da onargarria Legearen ondorengo arau-garapenerako uztea. Elementuon artean, ezinbestekotzat jotzen dugu organoen eraketa, oinarrizko funtzioak eta jarduteko kasuak ezartzea. Horretarako, hain zuzen ere proposatzen dugu funtsezkoa dela bertan beren-beregi txertatzea bereziki sindikatu eta enpresa nagusien ordezkariak, portuko trafikoan parte hartzen duten sektoreak eta udalerrriak, portuetako interes sozioekonomiko eta instituzionalen sorta zabalean parte hartzea. Gainera, organo horien bidez, hainbat gaitan parte har dezatela proposatzen dugu: portuko administrazioak lurralde eta hirigintza antolamenduaren oinarrizko elementuak ezartzeko erabakien prozesuan eta portuko plaza bakoitza kudeatzeko erabakirik garrantzitsuenetan.

Arestian jorraturiko gaiekin zati batez zerikusia duela-eta, garrantzizkoa iruditzen zaigu portuaren eta udalerrriaren arteko harremani buruzko aipamen berezia egitea. Izan ere, banaezinak dira lurralde mailan eta elkarren menpekoak arlo ekonomikoan, sozialean eta kulturean. Gainera, lankidetzarako eta ondo moldatzeko prest ageri dira. Hori guztia eta helburu horietarako egokitutako tresnak funtsezkoak dira portuek eta udalerriek udalerrietako portuen eremuen inguruko interesak bateratzean ezinbestean agertzen diren tirabirak gaindi ditzaten. Oso kontuan hartu behar da portuetako eremuak hirigunean bertan daudela kokatuta EAeko herri askotan; izan ere, erabat

txertatuta daude udalerrien eta herritarren eguneroko bizitzaren guneetan. Testuinguru horretan ikus dezakegunez, udalerriak nahikoa baztertuta gelditzen dira Legearen Aurreproiektuan. Portuen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak, berriz, nagusitasuna du. Pozik gaude 2008ko aurreproiektuaren aldean portuen hirigintza antolamenduaren eremuan ikusten diren hobekuntzak ikusita. Hala eta guztiz ere, gaiak duen garrantzia dela-eta, berriz ere aipatu behar dugu ezen, xede berean hainbat administrazioen eskumenak bateratzen diren edozein eremutan bezala, beharrezkoa dela interesak batera uztartzea, lankidetzarako eta laguntzarako tresnen bidez, baita esku hartzeko eremuei dagokienez ere, aurrerapenerako konponbideak gauzatzeko asmoz, bai portuentzat, bai portuak kokatzen diren udalerrientzat.

02/12*i*

Alde horretatik, tratamendu desberdinari eusten zaio, ordea, portuetako obren eta jardueren udal kontrolari dagokionez, betiere portuko administrazioak edo hirugarren batek haren pentzura portuen zerbitzuko eremuan eginiko higiezinaren eraikuntza barne. Udalaren hirigintza lizentziatik nahiz udal zergetatik salbuetsita daude. Onurabide horiek ez dira aplikagarriak jabe partikularrek portuen eremuan sustaturiko obretan eta instalazioetan; izan ere, udalerriak badu horien gaineko kontrola hirigintza lizentziaren eta udal zerga-ordainketaren menpe jarrita.

Portuen arloko eskumena duen sailak nagusitasuna du administrazio isiltasunari buruzko araudian ere administratuekiko eta Eusko Jaurlaritzako beste sai batzuekiko. Baimenen eta emakiden arloan isiltasun negatiboa ezarri da. Ontzi handien eta itsasontzien hondatzearen arloan, berriz, isiltasun positiboa agerrarazi da, arrantzaren, ingurumenaren, larrialdien arretaren eta babes zibilaren arloko eskumena duten sail eskudunei eta estatuko itsas administrazioari txostenak eskatzeari dagokionez. Gure ustez, berriz aztertu beharko litzateke baimenen eta emakiden arloan aurreikusitako isiltasun negatiboa, eta zentzu positiboa ezarri behar da, zertarako-eta administrazioaren eraginkortasuna bultzatzeko eta espedienteak



epearen barruan ebazteko, azterturiko xedapenetan agerrarazi baita eskaturikoa ukatzea justifikatzen duen ezinbesteko oinarria edo arrazoia.

Ur-marraren alboko guneak itsaso-portuko jardueretarako gordetzea, ordea, funtsezkoa da portuen eta portuko jardueren garapen egokirako eta gune horiek etorkizunerako duten ahalmenari eusteko, hain zuzen ere EBko politikek bultzatzen dituzten itsasoko jardueren dinamismo berria har dezaketen gune gisa. Era berean, zenbait jarduera goranzkorrek gune handiak behar dituzte itsasoa ukituriko lehorreko guneetan, adibidez: gure kostaldeei hobeto egokituriko itsasoko energien garapena, *offshore* energia eoliko flotagarria eta olatuen energia. Gune horiexek behar dituzte aldi baterako bilketetarako, muntaketa eragiketetarako, ekipoak konpontzeko, eraikuntzarako eta ontzigintzako konponketetarako, etab., baina ez dugu ikusten lehenespen hori beren-beregi islatzen denik Legearen Aurreproiektuan.

Azkenik, Batzordeak gogoetarako jarri nahi dituen bi gai proposatzen ditugu: Alde batetik, ezarritako arau-hauste eta zehapen oso larrien inguruan egoera desberdinei ematen zaien tratu berdina, non portuen herri jabariko substantzia eta hondakin kutsagarrien isurpenen izaerari buruzko abstrakzioa egiten den, betiere kasuan kasuko itsasontzia edozein delarik ere. Gure ustez, aintzat hartu beharko litzateke substantzian egiazko eragina.

Bestalde, lege tresna espezifikoan eta bereizian bilduta eta araututa dauden portuko tasen aldaketa portuen legearen eremuan arautzeko aukera dago, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasaren eta Prezio Publikoen Legean. Hala ere, tasa eta prezio horien tratamendua badirudi egokiagoa dela Lege horren aldaketaren testuinguruan portuen arautegi orokorraren erregulazioan baino.

## IV. OHARBIDE ESPEZIFIKOAK

---

Legearen Aurreproiektuaren testuan ikus daitekeenez, hainbat izendapen erabiltzen dira gure Autonomia Erkidegoa aipatzeko. Testu osoan nahi den bateratzeari edo uniformetasunari eusteko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa izendapena erabiltzea gomendatzen dugu, EHAE, edo Euskadiko Autonomia Erkidegoa, EAE, baina ez biak autonomia bera izendatzeko.

### Zioen azalpena

02/12*i*

Zioen Azalpena deskripzio hutsa izateari eta proposatzen den ekimenaren inguruko ziorik eta printzipiorik ezari buruz arestian adierazi ditugunei eutsi nahian, testu osagarri bat sartzea gomendatzen dugu, laugarren lerroalde gisa, Legaren aurreproiektuaren helburuen berri emango duena:

**“Gure kostaldeko instalazioen eta portuen multzoa itsas garraioaren beharrak betetzen duen sistema da merkataritzaren, arrantzaren eta itsasoko jolasen eremuetan, eta bere kudeaketa-ereduaren arabera sailka daiteke, hots, publikoa edo pribatua izatearen arabera. Horregatik, portuko zerbitzuetako operadoreen eta hartzaileen beharrei erantzun osoa eman nahi die lege honek.”**

Portuko herri jabariaren kudeaketa arautzen duen III. Tituluar buruzko lerroaldeari dagokionez, “hondakinak jasotzea” aipatzen da. Puntu horretan eta arau-xedapenetan, adierazpen horren orde honako hau jartzea gomendatzen dugu: **“itsasontzi handiek eta karga-hondakinek sortutako hondakinak”**.

Halaxe egin beharko litzateke, zehatzago ematen baitzaio erantzuna Europako Parlamentuak eta Kontseiluak azaroaren 27ko 2000/59/EE Zuzentarauan (2007ko abenduaren 13ko 2007/71/EE Zuzentarauaren bidez aldatua) ezarritakoari. Itsasontziek eta kargako hondakinek sortutako hondarrak jasotzen dituzten portuko instalazioei buruzkoa da Zuzentaraia.

Bestalde, Zioen Azalpenean eta ondoren xedapenen testuan erabilitako "demanio" terminoa barik irakurleak errazago ulertuko duen "herri jabaria" erabiltzea gomendatzen dugu.

## **2. artikulua. Legea aplikatzeko eremua**

Aurreproiektuan aurreikusita dago Pasaiaiko eta Bilboko portuak Legearen aplikazio-eremuaren barruan sartzea. Horri buruzko gogoeta egin da irizpen honen aurreko atalean, eta Batzorde honek adierazi du ez dagoela sartzeko horren alde, besteak beste ezberdintasun handiak baitaude tamainaren, ekonomi jardueraren, kudeaketa araubidearen eta beharrea aldetik EAEko portuko egungo sistemaren barruko portu horiekiko. Beraz, ez dago azken portu horietarako aurreikusitako erregulazio egokirik. Hortaz, Pasaiaiko eta Bilboko portuak Lege honen aplikazio-eremuan sartzeko aurreikuspena eten behar dela uste dugu baldin eta interes orokorreko portuen izaera galtzen bada eta EHAren titularitateko transferentzia bihurtzen bada.

02/12*i*

## **3. artikulua. - Definizioak**

1. atalean, arauak argitzeko hauxe sartzeko proposatzen dugu: "itsas portuak dira ... kokaturiko **lurreko** guneen, itsasoko uren eta instalazioen multzoa ...".

Egoki irizten diogu hori gehitzeari, portuek bi gune baitituzte: Itsasokoa eta lurrekoa, non kaiak jarriko diren; itsasontziek itsasoratzeko eta lehorreratzeko eta zamalanetarako eragiketak egiteko modua eman beharra dago portuetan.

EGABk ez du gomendatzen gutxieneko baldintzak sartzeko itsas-lurreko jabariaren gune bat portutzat estrictu sensu hartzeko, zeren eta, hala betetzen ez bada, itsas instalaziotzat hartu beharko bailitzateke nahitaez itsaso-lurreko jabariko gune hori. Kategoriatan eta bestearen artean Aurreproiektuan dagoen bereizketa ez da garrantzizkoa arauketaren ondorioetarako. Hortaz, alferlana da gutxieneko baldintzak betetzen diren edo ez argitzea, bereziki

horietako zenbait modu erlatiboan bete daitezkeenean. Demagun, esaterako, garraio sare nagusiekiko lotura bermatzen duten sarbideak izateko dagoen baldintza; gainera, instalazio bakoitzak tradizioz ezarritako katalogazioa du.

Zehazkiago, garraio sare nagusiekiko loturarako sarbideak izateko baldintzari dagokionez, garraio hori ezin utz daiteke azpiegituretatik aparte; azpiegiturek ere aipatu beharko lirateke. Gogoratu behar da oraindik indarrean dagoela Eusko Jaurlaritzak onetsi duen eta arlo honetan eragina duen garraio iraunkorraren plana.

02/12*i*

Azkenik, portuko trafikoa zeri deritzon definitzea gomendatzen dugu; horretarako, zertan datzan azaldu beharko litzateke xedapen honen definizioetan, baita bere baitan biltzen dituen eragiketak ere. **“Portuko trafikoa deritzo itsasontziak portuetan sartu, irten, porturatu, itsasoratu, egon eta konpontzeko eragiketen multzoari. Honako eragiketa hauek ere sartzen dira portuko trafikoaren barruan: ontziok lehorreratzeko transferentziakoak, edozein eratako merkantzien garraioa, arrantzakoak, bidaiarien eta tripulatzailen zuzkidura eta merkantziok portuko gunean aldi batez biltzekoak”**.

#### **4. artikulua. EAEren Titularitateko Portuen Sailkapena**

Lehenik eta behin esan behar da ezen, xedapen honen lehen atalean, EAEko titularitateko portuen sailkapena bildu dela; soilik arrantza ontziei, itsasoko jolasetako azpiegiturei eta portu mistoei buruzkoa da sailkapena. Kategoría horren menpe gelditzen dira dartsena komertzialak, eta gaur egun Bermeoko portuan presentzia izanik, gehiago ikusarazi beharko lirateke, garraio iraunkorragoaren testuinguruan duen eginkizuna dela eta. Ez dugu azpimarratu interes orokorrekoen sailkapenean sartzen diren portuen ageriko izaera komertziala, Bilboko eta Paisaiako portuena. Portu horiek Legearen barruan sartzea aurreikusita dago Aurreproiektuan, interes orokorreko portuen izaera galtzen denean. Horren aurrean, lege espezifikoaren bidez araupetzearen alde agertu gara.

Jarraian, 1. Mailako arrantzako edo lehentasuneko portuen edo 2. Mailako portuen ondorengo sailkapena bildu da, baita itsasoko jolasen azpiegiturenak ere. Sailkapena gutxieneko zerbitzuen eta instalazioen arabera egiten da. Kategoriatan edo bestean sartzeko irizpideak aipatu beharko lirakekeela uste dugu. Gainera, gure ustez, garapen maila hori egokiagoa da arauzko xedapenetan Legearena berarena baino, eta garapen-araudia eman arte atzeratu daitezke.

## **6. artikulua. Eskumenak**

Zerbitzu eta zaintza arautegiak onesteko eskumena eratzikitzen die aipaturiko xedapenak portuen eta itsasoaren arloko gaietan eskumena duen sailari. Batzorde honek hauxe **gehitzea gomendatzen du 2.e) atalari dagokionez:**

**“Zerbitzu eta zaintza arautegiak onestea, eta organo kudeatzaileei entzunaldia ematea, hala nola emakidadunei edo pertsona baimenduei”.**

Aurreikuspen horrek onartzen duenez, beren aurreikuspenak sar ditzakete portuek eurek, zehaztapenei eta ematen dituzten zerbitzu zehatzei dagokienez. Estatuko arautegian aukera hori agerrarazi da.

## **12. artikulua. Portuen Plan Bereziak**

Atal bat gehitzea gomendatzen dugu. Hauxe: **“Portuen Plan Berezia behin betiko onetsita, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da erabakiaren testu osoa”.**

Gehitze hori bat dator plangintza-tresnen legeria arau-emailean ezarritakoarekin.

## **17. artikulua.- Erabilera mistoak**

Erabilera mistoekin batera, erabilera osagarriak 2. lerroalde batean ezartzea proposatzen dugu. Honelaxe geldituko litzateke: **"erabilera**

**mistoak eta osagarriak”, eta 2. lerroaldea gehituko litzateke. Aurrekoen erabilera osagarriak dira portuko trafikoarekin, sortzen dituzten itsasoko trafikoaren bolumenarekin edo portuaren erabiltzaileei emandako zerbitzuekin lotutakoak”.**

Hala, erabilera mistoak ez ezik, hots, 2 ezaugarriak konbinatzen dituztenak (Aurreproiektuaren arabera, arrantzakoak eta itsasoko jolasekoak), portuko erabilera guztien osagarriak edo gehigarriak ere ezarri dira (komertzialak eta industrialak, arrantzakoak eta itsasoko jolasekoak). Horretarako, lege estaldura ematen zaie bestela baztertuko liratekeen zenbait jarduera osagarriari. Hala aurreikusitako da Estatuko Portuen eta Merkataritza-ontzien Legearen testu bategina onetsi duen irailaren 5eko 2/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 72. artikuluan. Esate baterako, logistikako edo biltegiatze jarduerak ezarri ditu.

## **29. artikulua.- Portuetako obren emakidaren edukia**

1.ñ) atala gehitzea gomendatzen dugu emakidetakoko tituluak bildu behar dituen aurreikuspenen artean: **"segurtasun neurri aplikagarriak"**.

Halaxe da, segurtasun neurriei buruzko aipamenaren falta sumatzen baitugu, funtsean sarbideen kontrolaren gainekoa, hain zuzen Portuko Instalazioen eta Itsasontzi Handien babesari, bide-segurtasunaren arauak eta ibilgailuen zirkulazioari (bidezkoa bada) eta Larrialdiei (barneko larrialdi plana) buruzko nazioarteko kodearen 2004ko uztailaren 1ean indarrean sartu izanaren ondorioz.

## **31. artikulua.- Portuetako herri jabariaren erabilera**

Ikusten dugunez, ahaleginak egin ditu legegileak portuko emakiden eta baimenen eremuko jardueren ondorioz izan litezkeen laneko arriskuen arloko erantzukizunak argitzeko, baina gure ustez ez dituzte ahaztu behar, hala denean, euskal administrazioari berari dagozkionak, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legearen arauekin

bat etorritz. Horregatik, egoki irizten diogu haxe gehitzeari manuaren azkenean: ***“... eremu honetan EHAEko Administrazio Orokorrak legeria aplikagarriaren arabera izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe”***.

### **32. artikulua.- Udal lizentziak portuen herri jabariaren erabileran**

Aurreproiektuan nagusitasuna ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren Sailari portuen arloan, hain zuzen ere udalerrien kalterako. Horren erakusgarri dugu 32. artikuluan ezarritako udal zergak eta lizentziak portuko obrei eta jardueri lotuta ez egotea, Portuko Administrazioak, bere eskumenak erabiliz, euskal titularitateko portuen zerbitzuegunean egin beharrekoak. Beste erakusgarri bat ere badugu: Portuko Administrazioak higiezinaren eraikuntza zuzenean edo bere kontura lan egingo duen kontratista baten bitartez betearazteko udalaren hirigintza lizentziaren salbuespena. Desberdintasuna agerikoa da ere zerbitzuegunean emakida duten partikularrek sustaturiko obren eta instalazioen aldetik; udalaren hirigintza lizentziari lotuta gelditzen dira.

Partikularren eta administrazioaren arteko desberdintasun hori kendu behar dela uste dugu. Gainera, udalen esku utzi beharko litzateke lizentzia emateko ahalmena Portuko Administrazioak buruturiko obrei dagokienez, lizentzia horren pean jarrita partikularren baldintzen beretan.

### **34.3. artikulua.- Emakidaren eremua**

Legea luzatzeko kasuak arautzea proposatzen dugu. Beharrezkoa da, zeren eta arauen bidezko erregulazioa ezin erabil baitaiteke Legean ezarrita ez daudenak arautzeko.

### **35.4. artikulua.- Emateko prozedura**

Legearen arauen garapenak emakiden baldintzaren inguruan landu beharrekoak zehatzago lantzea proposatzen dugu; emakida-ekitaldian ezarri beharko dira baldintza horiek.

### **36. artikulua.- Baliatze edo zergapetze ekintzak**

1. atalean, eskuratzailleak *inter vivos eskualdaketa* batean eskualdatzailearen eskubideak eta betebeharrak emakidan eskuratzen dituela zalantzarik gabe islatze aldera (hala nola lanpostuei eutsiko zaiela bermatzea), formula bat sartzea proposatzen dugu, beren-beregi ezarria *mortis causa eskualdaketak* direnean.

“... baina eskualdaketak ez dakar emakidaren baldintzak aldatzerik, eta **titular berria subrogatu egingo da horren ondoriozko eskubideetatik eta betebeharretatik**”.

02/12*j*

6. atalari eta lorturiko emakida 12 hilabetean transferitzeko betebeharrari dagokionez, hain zuzen ere erremate judizialarekin, judizioz kanpoko errematearekin edo erremate administratiboarekin lorturiko emakidetan, edo hipoteka-kredituak ez ordaintzeari dagokionez emakidaren xedeko jarduerak edo erabilerak betetzeko beharrezko baldintzak betetzen ez direnean, egokitzat jotzen dugu baldintza horiek betetzen direla kontrolatzeko aurretiazko moduak arau bidez ezartzea.

### **39. artikulua.- Emakiden berrikuspena**

1. d) atala gehitzea gomendatzen dugu. Hauxe: **“Salbuespenez, ingurumenaren babesarekin edo segurtasunarekin lotutako interes orokorreko arrazoiak daudenean. Hala denean, kalte-ordaina emango zaio emakidadunari”**.

Aurreproiektuak interes orokorreko arrazoiak bildu ditu, baina duten garrantzia dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu beren beregi azpimarratzea segurtasunarekin eta ingurumenarekin lotutako arrazoiak.

Bestalde, arauen mailako arloa izan arren lege arlokoa baino, emakidaren desjabetze kasuei dagozkien kalte-ordainen kalkulua ezarri beharra dago Legean, eta hauxe dakarren lerroaldea gehitzea



gomendatzen dugu: **“kalte-ordaina kalkulatzeko, 43. 5 eta 6. artikuluan** (erreskateari buruzkoa) **ezarritakoa bete beharko da”**.

#### **41. artikulua.- Emakidak eta baimenak iraungitzea**

1. b) atalean kasu bat ezarri da emakidak eta baimenak ezeztatzeko, hain zuzen ere mantentzea bateragarria ez denean “interes handiakotzat” jotako portuko beste erabilerekin edo jarduerekin.

“Interes handiakotza” noiz den zehaztu beharra dagoela irizten diogu, zeren eta, bestela, segurtasun juridikorik eza eta arbitrariotasuna gerta baitaiteke. Portuko jarduera berrien garapena interes orokorreko portuko jarduera berriak edo enplegua nabarmen sortzen duten jarduerak direla pentsa daiteke.

Estatuko legeriak honako hau xedatu du kasu horietan: “Portuko Agintaritzari dagokio aurreko inguruabarrak aintzat hartzea zioak bilduko dituen ebazpenaren bidez, baina aurretik entzunaldia emango zaio baimenaren titularrari”; hala idatzita, berme handiagoak izango lirarteke aurreproiektuaren egungo bertsioarekin baino.

#### **41. artikulua.- Emakidak eta baimenak iraungitzea**

Emakidak eta baimenak iraungitzeko beste kasu bat, ezarri beharrekoa, sozietate titularra iraungitzea edo desegitea da.

Beraz, m) puntua gehitzea proposatzen dugu: **“Sozietatea desegitea edo iraungitzea, bategitea edo zatiketa denean izan ezik”**.

#### **43. artikulua.- Emakiden erreskatea**

Aurreproiektuan ez da aipatzen ezer erreskatearen ordainketari buruz emakida edo baimena iraungitzen denean. Horregatik, 7. atala gehitzea proposatzen dugu; izan ere, arlo horretan ondoren egingo den arautegiaren garapenari kalterik egin gabe, ordainketaren lehen definizioa sartuko da Legean.

7. atala. **“Dirutan ordaindu daiteke emakidaren erreskatea, edo emakidaduna ados badago, beste emakida baten bidez; edota erreskate partziala baldin bada, emakidaren baldintzak aldatuta”.**

#### **44. artikulua.- eta Hirugarren Kapituluko hurrengoak. Portuetako herri jabariaren artapena**

Hirugarren kapituluko artikuluetan isurpen kutsagarriak egiteko debekuarekin gertatzen den bezalaxe, kutsadura akustikoaren eta luminikoaren inguruko debekuak sartzea proposatzen dugu.

02/12j

#### **45. artikulua.- Aldatu den errealitate fisikoa lehengoratzea**

Legearen Aurreproiektuaren xedapenak gauzatu beharreko garbiketa edo bilketa lanak baizik ez ditu ezarri, baina ez ekosistemari eragin dakizkiokeen balizko kalteak. Beraz, beharrezkoa da kalte-ordainetarako bideak aurreikustea, ondoren proposatuko den moduan:

Gehitu beharreko 2. lerroaldea: **“Baldin eta lehengo egoera berreskuratzetik ez badago eta, nolana ere, kalteak gertatu badira, arau-haustearen arduradunek bidezko kalte-ordainak emango dituzte”.**

#### **49. artikulua.- Zerbitzu orokorrak**

Zerbitzu orokortzat harturiko zerbitzuen zerrenda handitzea proposatzen dugu, hain zuzen ere estatuko legeriak 33/2010 Legean ezarritako interes orokorreko portuen zerbitzu orokortzat hartutakoak erabiliz. Lege horrek interes orokorreko portuen zerbitzuak emateari eta araubide ekonomikoari buruzko 48/2003 Legea aldatu du. Ondorio horretarako, hauxe gehitu du:

**-Portu, merkataritza eta beste jarduera batzuetako zerbitzuekin lotutako portuko eragiketak koordinatzeko eta kontrolatzeko zerbitzua.**

**-Seinaleztapen eta balizamendu zerbitzuak eta nabigaziorako**

## **beste laguntza batzuk, itsasontziak eta itsasontzi handiak portura hurbiltzeko eta sartzeko balio dutenak, baita barneko balizamendua ere.**

Honako hau ere aldatzea proposatzen dugu: zerbitzuak "zerbitzuegunean" ematea. Izan ere, termino murriztaileagoa da. Horren ordez, portuko herri jabarian izatea proposatzen dugu. Ondorioz, handitu egiten da Portuko Administrazioaren pertsonalaren lanaren jarduketaremia, emakida jaso duten zerbitzuak barne.

### **51. artikulua.- Zerbitzuak emateko araubidea**

Xedapen honen lehen atalean, zerbitzu orokorrak ematea ezarrita dago, dela portuen eta itsasoaren arloko zuzendaritza eskudunak berak emanak zuzenean, dela legez aurreikusitako zeharkako kudeaketako mekanismoen bidez eta araudi horren garapenean xedaturikoarekin bat etorritik. Jarraian, zeharkako kudeaketako mekanismoak erabiltzeko mugak ezartzen ditu; izan ere, modu irekian eta orokorrean ematen dira "zerbitzuek agintaritza erabiltzea dakartenean" edo "kudeaketa zuzena komenigarritzat jotzen denean", eta ziurgabetasuna sortzen dute zerbitzu orokorrak zuzenean gauzatu behar direnean. Horrexegatik sumatzen dugu bi baldintza horien arabera ulertu beharreko jarraibideen falta, eta gaia zehaztea gomendatzen dugu Legearen xedapen honen inguruan egingo diren arauen arloko garapenean.

### **53. artikulua.- EA Eren titularitateko portuen jarduerari eustea**

Itsasontzi handiak bakarrik ez ezik, kargak ere galaraz dezake jarduera. Hori dela-eta, 1. atalean haxe gehitzea gomendatzen dugu: "baldin eta itsasontzi edo itsasontzi handiren bat **edo horren karga.....**".

Gehituriko hori bat dator hondoratzeari buruzko 54. artikuluan ezarritakoarekin; artikulua horretan, itsasontzi handiaren karga ere aurreikusita dago. »Hori dela-eta, ezinbestean sartu behar da 3.

atalean *kargaren arduraduna* Portuko Administrazioaren aginduak jasoko dituztenen artean. Aginduak emango dira EA Eren titularitateko portuen jardueran normaltasunaz berriz ezartzeko.

### **56. artikulua.- Itsasontzi, ontzi eta ibilgailu abandonatuak**

Abandonaturiko ontziei buruzko 2. atalari dagokionez, identifikazioa baino lehen, hauxe sartzea gomendatzen dugu: “entzunaldia emango zaio interesatuari, armadoreari edo kontsignatarioari”, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren 30/1992 Legearen preskripzioekin bat etorriz. Izapidea eta identifikazioa bi kontzeptu desberdin dira, lotuta badaude ere, eta prozeduraren arautegia errespetatu beharra dago.

02/12*j*

### **58. artikulua.- Arau-hauste arinak**

Batzordea honek arau-hauste arinaren suposamenduen tipifikazioa proposatzen du:

e) “Erruz, zabarkeriaz **edo nahikoa segurtasun baldintzarik ezagatik** eragindako edozein ekintza edo ez-egitea”.

Halaxe da, zeren eta, zabarkeriaren barruan segurtasun-baldintzarik eza ere egon badaiteke ere, komeni da beren-beregi aipatzea.

n) “**Kutsadura eragin dezaketen konponketak, karinak eta bilketak, araudi aplikagarriaren kontra jardutearen ondoriozkoa, eta itsasontzi handiek eta karga-hondakinek sortutako hondakinen inguruko betebeharrei buruz araudia ezarritakoa ez betetzea”.**

Halaxe da, zeren eta ingurumena zaindu behar baita. Aurreproiektuaren artikuluetan ezarrita dagoenez, debekatuta dago isurketak egitea eta nahitaez eman behar dira hondakinak, ingurumenaren babesarekin lotutako adibide gisa. Horren ondorioz, arauak ez betetzeak arau-hausteak dira, eta zigorra dakarte. Gauza bera

aurreikus daiteke kutsadura akustikoaren edota luminikoaren gainean 44. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako debekuak badira, proposatu dugun legez.

### **60. artikulua.- Arau-hauste oso larriak**

c) atala gehitzea gomendatzen dugu: "... substantzia, hondakin eta **material** kutsagarriak isurtzea". Izan ere, "materialak" ez dira hondakinak eta substantziak bezalakoak. Beraz, tipifikazioan arau-hauste oso larria dela ezarri behar da.

### **68. artikulua.- Kobranta bermatzeko neurriak**

02/12*j*

Aurreproiektuaren artikuluei xedapen gehigarri bat sartzea proposatzen dugu, 68. artikulua, hauxe dakarrena:

#### **68. artikulua.- Kobranta bermatzeko neurriak**

**"Isunen nahiz eragindako kalte-ordainen zenbatekoa exijitu ahal izango da premiamenduko administrazio-bidean edo nahitaezko betearazpenerako beste bitarteko batzuk erabiliz".**

Halaxe da, zeren eta beren-beregi adierazi behar baitira zehapenen ordainketa bermatzeko administrazio-bideak. Halaxe xedatu da portuei buruzko estatuko legerian.

### **69. artikulua.- Portuetako Operadoreen, Lizentzien eta Emakiden Erregistro Publikoa sortzea**

Aurreproiektuaren artikuluetan xedapen gehigarri bat sartzea proposatzen dugu, 69. artikulua Titulu berri baten barruan: **VI. Titulua: Portuetako Operadoreen, Lizentzien eta Emakiden Erregistro Publikoa.**

#### **69. artikulua.- Portuetako Operadoreen, Lizentzien eta Emakiden Erregistro Publikoa.**

**1.- Portuen arloan eta itsasoko gaietan eskumena duen sailaren barruan, Portuetako Operadoreen, Lizentzien eta Emakiden Erregistroa sortuko da sei hilabeteko epearen barruan, lege hau indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita”.**

**2.- Arauz zehazten dira inskribatzeko moduak eta herri jabariaren erabilera pribaturako administrazio emakiden eta lizentzien datuak”.**

Halaxe da, zeren eta portuetako baimenen eta emakiden erregistroa ezarri beharra baitago. Erregistro horretan, gardentasunez bilduko dira emandako portuen baimen eta emakida zehatz bakoitzaren oinarriko elementuak eta baldintzak, eta publizitatea egingo zaie; hala, kontrolatzeko modua egongo da. Antzeko neurriak hartu dira emakidak eta lizentziak dauden beste eremu batzuetan, esate baterako herri jabari irrati elektrikoa.

02/12*i*

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Hauxe dakarren Xedapen Gehigarria gehitzea proposatzen dugu. **Honako hau: ontzi handien karga, deskarga, estibatze eta desestibatzeari dagokionez, OITren 1973ko 137. zk.ko hitzarmena errespetatuko da, portuetan kargak erabiltzeko metodo berriek gizartean dituen ondorioei buruzkoa; eta 1979ko 152. zk.ko hitzarmena, portuetako lanari eta higieneari buruzkoa.**

Halaxe da, portuetako lanari buruzko 137 zk.ko Hitzarmena (Espainiako gobernuaren berrespen formala 1975eko apirilaren 22an erregistratu zen) eta portuetako lanen segurtasunari eta higieneari buruzko 152. zk.ko Hitzarmena (Espainiako gobernuak 1982ko otsailaren 13an erregistratua) direla eta.

## V. ONDORIOAK

---

EGABk egoki irizten dio Portuen Legearen Aurreproiektua izapidetzeari, baina irizpen honetan azaldutako oharbideak aintzat hartu beharko lirateke.

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

O.E. Presidentea  
Juan María Otaegui

Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro





